

JAURLARITZAREN ERAKETA. Nicolas Redondo eta Jesus Egigurenekin bildu zen Juan Jose Ibarretxe Ajuria Enean

Oposizio «eraikitzailea eta malgua» agindu dio Redondok Ibarretxeri

PP-PSOE itunaren balioa berretsi du, «ETAren aurkako borrokarako» ezinbestekoa delako

Felix Iriarte | GASTEIZ

Alderdi sozialistak oposizioan jardungo du datorren legealdian, baina oposizio «eraikitzailea» egingo du. Nicolas Redondo idazkari nagusiak adierazi du EAJ-EARekin komunikazio esparruak ireki nahi dituela elkarlana bultzatzeko.

Adierazpen horiek Juan Jose Ibarretxe EAEko jarduneko lehendakariarekin bildu ostean egin zituen Redondok. Bi orduz izan ziren Ajuria Enean, egoera politikoa aztertzeko.

Redondok azkenengo bi urtetan ukatu dion elkarlana eskaini dio Ibarretxeri. «Esan diot ez garela frontoi bat izango. Lan egingo dugu apriorismorik gabe, eta prest gaude aurkeztuko dituen ekimenak aztertzeko», adierazi zuen PSE-EEko idazkari nagusiak.

Jokabide politiko «malgua» eskaini zion lehendakariari, gehienbat lehen urratsa Ibarretxek berak egin duela uste delako. Redondok esan zuen «oso berri ona» dela Ibarretxek EH baztertzea ETAren indarkeria desagertu arte. Gainera, Redondok uste du Ibarretxeren jarduna egungo marko politikoa errespetatuz egingo dela.

Ibarretxeren inbestiduran izango duten portaera ez zuen argitu. Redondok EHrekin hausteko exijitu zion aurka ez agertzeko, eta baldintza hori beteta, orain Ibarretxeren ekimenen zain dago erabakia hartzeko.

«Ibarretxek askatasuna bermatu behar du»

PSE-EEko idazkari nagusiak eskaini zion elkarlanak «askatasuna, berdintasuna eta bakea» lortzeko balio beharko luke. Izan ere, Redondok uste du hiru helburu horiek alderdien programen gaineratik daudela, eta edozein gobernuak bermatu behar lituzkeela.

Elkarlana erakundeetara eramatea ez du baztertu Redondok. Hezkuntzako politikan, komunikabideenean eta Estatutua garatzeko politiketan ados jartzea gustatuko litzaioke Redondori. Gai horietan, batez ere Estatutuaren garapenari dago-kionez, «joera eraikitzailea» agindu zion Ibarretxeri. Estatutuari buruzko eztabaida datozen hilabeteotan egingo den «garrantzitsuen» izango dela

esan zuen. Eztabaida horrek beste jokaleku bat ekar lezakeela pentsatzen du, baina betiere «Konstituzioaren eta Estatutuaren barruan».

PP-PSOE ituna

PP-PSOE itunaren balioa berretsi zuen Redondok. Esan zuen «ETAren aurkako borroka irabazteko» ezinbesteko tresna dela, gobernuen artean hari bakar bat izatea ahalbidetzen duela.

lako. «ETAren aurkako borrokan ezin da aro ezberdinak izan, PPko edo PSOEko gobernuen arabera. Itunak hari bakar bat egotea ahalbidetzen du», esan zuen.

Horrekin batera, EAEn EH kenduta beste alderdi guztiak bilduko lituzkeen ituna aldarrikatu zuen. «Terrorismoaren aurkako Itunak ezinbesteko gehigarri bat behar du: batasun demokratikoa berreskuratzea.

Hori ezinezkoa zen hauteskundeen aurretik, baina orain ez. Gainera, oinarria eta lasaitasuna badugu hala egiteko», adierazi zuen.

EAEko alderdien zeregina egoeraren diagnostiko bateratu bat egitea litzateke. «Egoeraren diagnostiko bateraturik egiten ez badugu, nekez egingo dugu aurre guztiok batera, eta orduan irabaziko duena ETA izango da», argudiatu zuen.



KARLOS BIGURI

Juan Jose Ibarretxe, Jesus Egiguren eta Nicolas Redondo, atzo, Ajuria Enean.

PPk eta PSOEek «lasaitasuna eta itxaropena» dute, Ibarretxek EHrekin duen jarrera dela eta

Erredakzioa | BILBO

PP eta PSOE «lasai eta itxaropentsu» agertu ziren atzo, Juan Jose Ibarretxek EHren inguruan agertutako jarreraren ondorioz. Javier Arenas PPko idazkari nagusiak «lasaitu politikoa» hartu duela adierazi zuen. Dena den, zantzak agertu zuen jarduneko lehendakariaren autonomia mailaren inguruan: «Ez dakit Ibarretxe jaunak EAJren barne egoera eta EARekin duen koalizioa kontrolatzen duen».

PPko idazkariaren berbetan, bere alderdiak «errespetuz» hartuko luke PSE-EEk Ibarretxeren inbestiduraren aurka ez bozkatzeari.

Jose Luis Rodriguez Zapatero PSOEko idazkari nagusiak «neurriko ikusmina» agertu zuen Ibarretxe eta Otegiren bileraren ostean: «Ezin dugu lau urte itxaron beste hauteskunde batzuk egin arte. Euskadin jende askok uste sendotetan oinarrituta egindako politikaren ahalegina behar du, eta, beraz, itxaropenez

eutsi behar diegu Ibarretxeren hitzei». Inbestidura saioan sozialistek haren aldeko botoa emateko aukera ukatu zuen, baina ez zuen baztertu abstentzioaren alde egitea.

Enrique Mugika Espainiako Arartekoak esan zuen «itxaropena» badagoela Ibarretxek EHrekin itun oro baztertzeko erabakia hartu ostean. Gatazka konpontzeko ahalegina egiterakoan «elkarrizketa gaiztoa» ez baliatzeko eskatu zuen, hau da, bakea eta politika ez nahasteko.

ESANAK

NICOLAS REDONDO

(PSE-EEko idazkari nagusia)

«Ez gara frontoi bat izango, lan egingo dugu apriorismorik gabe eta ekimenak aztertuko ditugu»

«Oso berri ona da Ibarretxek esatea ez duela EHrekin gehiago hitzartuko»

«Orain posible da demokraten batasuna, lehen ez»

BILERA

PP-PSOE ituneko jarraipen mahaia etzi bilduko da

PP eta PSOEren arteko ituneko jarraipen batzordeak bilkura egingo du datorren larunbatean, Jose Luis Rodriguez Zapaterok PSOEko idazkari nagusiak eta Javier Arenas PPko idazkari nagusiak atzo Madrilan egindako bilera batean erabaki zuten. «Ituna indarrean eta indartsu dagoela azpimarratzea» izango da bileraren helburua, bi alderdietako iturriek Efe berri agentziari adierazi ziotenez.